

Eskual-Zaleen-Bilzarra

1906^{eko} B I L L - A L D I A .

Eskual-Zaleen-Bilzarreko lagunek, 1906^{eko} bere bill-aldia egin dute buruillaren 13^{an}, Ondarrabia-ko Herriko-Etchean, *don Maximo Laborda*, hiriko alkatearen baimenarekin.

Bilkhura hasi da hameka orenetan. Buru zen Bilzarraren Buru-lehena, *don Arturo Campion*, Nafarroako deputatu ohia, sahetsetako zituelarik *Nere Jaun Charles Petit* eta *Nere Jaun J. P. Elissague*, bilkhurako zaharrenetarik, laguntasuneko buru-bigarren ezin bildu zirenен orde.

Ongi ethorria bilkhurari eginik eta ezin bildu zireneri orhoitzapen on emanik, Buru lehenak jakinarazi du, *Nere Jaun Guildeau*, gure lagunetarik bat, osasunik aski gabez, gehiagorik gureganat ezin bilduko dela. Esker-on zaio, guzien izenean, Bilzarrari hastapen ematea era-kharri zuen eskualzale jakintsun horri.

Mintza-aldia hortan eman zaio sekretarioari. Hunek jakitate eman du *Grazien Adema*, jaun kalonje, Bilzarraren ohorezbo Buru bethierekoa, ez Piarres *Garacotche*, Done-Joane-Garaziko jaun erretora, ez eta bertze zembeit, etzerzizio izpiritualetan sarthu, ezin gureganako zirela. — Halaber eman ditu la untasunean sartza galdetu dutenen izenak: hekiek ditugu *J. P. Elissague*, Done-Joane Lohitzungo jaun erretora, 100 libera hastetik emanik, gerorako emaitzetarik libratzen dena; — *M. Michel Delgue-Arana*, sal-erostun orobat Done Joane-Lohitzundarra; *Charles Becas*, Bidarteko jaun erretora; — *Silvestre Fortabat*, Sarako jaun erretora; — eta *J. B. Gracy*, Ahatsako jaun erretora.

Bilkhurak on-hartu ditu jazko bill aldiari behatzten zitzaitzkon chehetasunak. On-hartu ditu ere, *morde Leon Hiriart* biltzarreko moltseroak chuchen eman dituen urtheko har-emanen kontuak. Dio ere Jaun horrek, aurthen pagatu direla, jazko bilkhuraren nahitik, 260 libera, Landerreche aphezak argitaratu duen liburutto *Aphurka-ren* imprima sari, eta horrek ere, bere nahitik eta atsegin-sari, eman diozkatela liburutto hetarik bana, Bilzarreko 130 laguneri eta Baionako Semenarioko 65 aphez-gai eskualdunerai.

Orduan, mintza-aldia hartu du *don Arturo Campion* buru-lehenak. Adiarazi du, amulsutasunekin, nola España-aldeko eskualdun-Deputaziñoek moldatzerat deramatene *Eskual-Akademia* bat; nola ordutik beldurtzeko baden probintzia hetarikako gure Bilzar-lagunak geldi daitezen gurekin-bilzetik; ez othe den beraz uste izateko Bilzarraren hoherena laitekela bere nahitara suntsitzea.

Berehala ordea, *Nere Jaun Charles Petit* chutitu da, dioelarik amulsuki, Akademia baten urhaspidea denaz geroz mintzairaren barnatasunekin ikustea, eta bertzelakoa denaz geroz gure Bilzarraren urhaspidea: Eskuaren irauten eta zabaltzen *dena den* laguntzea, ez duela, horren ustez. Bilzarrak suntsitzeko asmurik zeren har dezan. — Bere aldetik, *Nere Jaun Juanchuto*, dotor mirikuak dio, eginen duten Akademiak eta Bilzarrak deus nahasturez beldurtzekorik nihondik ez duketela eta begi onez elgar ikuhiz bizitzeaz egin dezakelela. — Halaber, *Nere Jaun Elissague* aphez nausiak dio, Akademia eta Bilzarra, zein bere bidez ibil daitezkenaz bertze, atsegin ere balaitekela, Akademiak, berekilakoaren atchikarazteko, frantses eskualzale zembeitez hautu egin dezan, eta bertzalde, bere lagunetarik urtheka gure Bilzar-Bilkurarat ager-araz dezan, gure laguntasun aphasagoari indar eta bizitasun gehiagoko baten emateko. — Nere jaun Joanes de Jaurgain, Julio de Urquijo, Théophile Barran eta Hatan aphezak, hitz batez diote sentimendu beretako direla.

Orditik bada, don Arturo Campion ohoragarriak deklaratzen du, guzien ikhusteko molde hori zorionezko zaioela, eta ez duela Bilzarraren suntsitzeaz gehiagoko aiphurik egiten.

Orduan mintzatzerat onhetsia da M. Landerreche apheza, eta eskuaraz hedatu ki adiarazten du, Eskualzale batek, Eskuarari iraupen eta hedamen emateko, horren arabera, nolako urhaspideak hartzeko eta atchikitzezko lituzken. Lagun aditzaileek erakusterat eman dute, burutik buru, eraskunde hori atseginekin aditzen zutela.

Azkenekotz, Erregelamenduaren arabera, bozak emanez egin da urtheko kargudunen hautua.

Egin dire, boz batez Jaun hauk:

Joanes DE JAURGAIN	<i>Buru-lehen.</i>
J.-P. ELISSAGUE	<i>Buru-bigarren</i>
Isaac LOPEZ	
Piarres GARACOTCHE	{
Julio de URQUIJO	
Serapio MUJICA	
Frédéric DE SAINT-JAYME	
Théophile BARRAN	
Carmelo DE ECHEGARAY	
Martin LANDERRECHE	{ <i>Hoikiekilako.</i>
Clément d'ANDURAIN	
Georges LACOMBE	
	<i>Sekretario lehen.</i>
	<i>Sekretario.</i>
	<i>Molsero.</i>

Azkenean, hitz hartu da, bertze urtheko bilkhura eginen dela Hendaiko hirian, gerochago hautatuko den egun hatean.

Bilkurrik lekhora, lagun guziak bildu dire *Miramar* deritzan Ostaleriarat eta han egotu otruntza gozo eta bozkalentzia baten egiten, Gero zein bere bidean goan dire, eskuak bihotz osoz emanik, ziotela:

«Dathorren urtheraino ...! Jainkoak nahi badu...!»

Sekretario-lehena,

MARTIN LANDERRECHE, Aph.

Buruillaren 20ean 1906garrenean.

CONGRÈS BASQUE DE 1906

L'association bascophile *Eskual-Zaleen-Bilzarra* a tenu son assemblée annuelle, le 13 septembre, dans la principale salle de la *Casa Consistorial* de Fontarabie, que l'aimable et distingué alcalde de la ville, *don Maximo Laborda*, avait bien voulu mettre à sa disposition.

L'Assemblée s'est ouverte à 11 heures, sous la présidence de *Don Arturo Campion*, ancien député de la Navarre aux Cortès, assisté, en l'absence des vice-présidents qui s'étaient fait excuser, de M. Charles Petit, président honoraire de la Cour de Cassation et de M. l'abbé Elisague, curé-doyen de St-Jean-de-Luz.

Après avoir souhaité la bienvenue aux membres présents et adressé un cordial souvenir aux absents, le Président annonce avec regret la démission de M. le docteur Guildeau, l'un des fondateurs de l'Association, qui se retire à cause de l'état précaire de sa santé. Il est décerné un public remerciement à ce savant bascophile, et la parole est donnée à M. l'abbé Landerreche, secrétaire général.

M. Landerreche présente à l'assemblée les excuses de M. le chanoine Adéma, président honoraire, de M. l'abbé Garacotche, curé-doyen de St-Jean-Pied-de-Port, vice-président, et de quelques autres ecclésiastiques retenus à Bayonne par les exercices de la retraite. Il fait ensuite connaître les noms de nouveaux adhérents qui sont admis; ce sont MM. l'abbé Elissague, curé-doyen de St-Jean-de-Luz, qui s'est libéré des cotisations annuelles par un versement unique de 100 francs; Michel Delgue-Arana, de St-Jean-de-Luz, négociant, l'abbé Charles Becas, curé de Bidart, l'abbé Fortabat, curé de Sare et l'abbé Gracy, curé et secrétaire de la Mairie d'Ahaxe.

L'Assemblée approuve ensuite le *procès-verbal* du dernier Congrès, lu par le même secrétaire ainsi que les *comptes* présentés par M. Hiriart, trésorier, qui, suivant un vote émis à la précédente réunion a payé les frais d'impression de la brochure *Aphurka*, de M. l'abbé Landerreche. Celui-ci avait bien voulu, du reste, envoyer un exemplaire de cette plaquette, à titre gracieux, à chacun des membres de *l'Eskual-Zaleen-Bilzarra* et aux soixante-cinq séminaristes basques, auxquels elle était particulièrement dédiée.

Le Président annonce à l'assemblée la fondation prochaine, par les *Deputaciones* des quatre provinces basques d'Espagne; d'une Académie Basque, dont le but sera évidemment le même que celui de notre association. Il craint que cette Académie ne nous fasse perdre les adhérents que nous avons dans ces provinces et demande s'il ne serait pas sage de voter la dissolution de *l'Eskual-Zaleen-Bilzarra*.

M. Charles Petit s'élève contre cette proposition. Il déclare que l'Académie projetée ne pouvant se proposer qu'un objet essentiellement scientifique, alors que le but poursuivi par notre association est exclusivement pratique, il ne lui paraît pas qu'il y ait lieu de prononcer la dissolution de celle-ci.

M. le docteur Juanchuto se rallie à l'opinion de M. Petit. Il affirme que la confusion, ni l'antagonisme ne sauraient jamais se produire entre l'Académie et *l'Eskual-Zaleen-Bilzarra* et que, par conséquent, leur

coexistence lui semble non-seulement possible, mais encore utile et désirable.

M. le doyen Elissague est du même avis. Il fait de plus des vœux pour que l'Académie future choisisse un membre correspondant dans chacune des trois provinces basques de France et de plus se fasse représenter à nos réunions, qui n'en auront que plus de vie et de vigueur.

MM. de Jaurgain, Julio de Urquijo, Barran et l'abbé Hatan parlent dans le même sens.

Don Arturo Campion accueille avec plaisir les sentiments exprimés par l'assemblée et retire sa proposition.

M. Landerreche a la parole et prononce, en langue basque, un rapport, dans lequel il esquisse rapidement un programme pratique pour tout baskophile de bonne volonté. Il est écouté avec attention et faveur.

Conformément aux Statuts, le Président met aux voix la nomination du *Comité directeur* pour l'exercice 1906-1907.

Sont nommés à l'unanimité des membres présents:

M. Jean DE JAURGAIN, publiciste.	<i>Président.</i>
Don Isaac LOPEZ, avocat	<i>Vice-Présidents.</i>
M. le doyen ELISSAGUE	
M. le doyen GARACOTCHE	
Don Julio DE URQUIJO	
Don Serapio MUJICA	<i>Assesseurs</i>
M. Théophile BARRAN	
M. Frédéric DE ST JAYME	
Don Carmelo DE ECHEGARAY	
L'abbé Martin LANDERRECHE	<i>Secrétaire-général.</i>
M. Clément d'ANDURAIN DE MAYTIE	<i>Secrétaire.</i>
M. Georges LACOMBE	<i>Trésorier.</i>

Il est décidé que le Congrès de 1907 se tiendra à Hendaye. La date en sera fixée ultérieurement.

Après la clôture de l'Assemblée, un déjeuner confraternel, rempli d'entrain, a réuni, à l'*Hotel Miramar*, les membres de l'Association, qui se sont quittés plus tard, en se serrant la main et en se disant: Au revoir!

Le Secrétaire-Général,

LANDERRECHE, P^{re}

St-Jean-de-Luz, le 20 Septembre 1906.